

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Aintzane Agiriano Errasti  
Edorta Barandiaran Garcia  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2016ko urtarrilaren 21ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ezingo zela etorri jakinarazi zuen Mainer Landak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 21 de enero de 2016, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia Mainer Landa.

## **1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2016ko urtarrilaren 14ra arteko Alkate erabakien berri eman da, eta horien laburpena banatu.

Santa Marinako mendi-hegalari eusteko gastuak urbanizazio gastu bezala sartzeko eskaerari ezezkoa ematen dion 2013ko martxoaren 6ko Alkate erabakiaren aurka VISESAk jarritako errekurtsio dela-eta Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako 1. epaitegiak emandako epaiaren edukiaren berri ere eman da. Epaiak ez du onartu VISESAk ezarritako errekurtsioa, eta beraz, Udalaren eta eremu horretako gainerako sustatzaileen aldekoa da.

## **2.- 2016-KO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONARPENARI JARRITAKO ALEGAZIOEI ETA BEHIN BETIKO ONARPENARI BURUZKO ERABAKIA.**

Udalbatzarrak, 2015eko abenduaren 15ean egindako bilkuran, hasiera batean onartu zuen 2016rako ekitaldiko aurrekontua.

Espedientea jendaurrean jarrita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2015/12/24, 246. zenbakia) horren berri argitara ondoren, BILDU taldeko zinegotzi Edorta Barandiaran Garciak alegazioak aurkeztu ditu.

Bertaratutako guztiek ezagutzen dituzte alegazioen edukiak, horien kopia bat izan dutelako. Alegazio horiei eta hasierako onarpenari buruz Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak aurkeztutako diktamena ere ezagutzen dute.

Alkateak bototara jarri du batzorde informatzailearen diktamena, eta 4 zinegotzik aurka bozkatuta (EH BILDUko 3 eta IRABAZIko 1) eta gainerako 6 zinegotzik, alde (EAJ-ko 5 eta EEEko 1), Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

**Lehenengoa.-** 2016ko aurrekontuaren hasierako onarpenaren aurka 2016ko urtarrilaren 14an (sarrera zenbakia: 60) Edorta Barandiaranek aurkeztutako alegazioak EZ ONARTZEA.

**Bigarrena.-** Udal aurrekontua (5.325.435,84 €) eta 2016ko aurrekontu exekuzio araudia behin betiko onartzea, eta horrekin batera, baita 2016ko aurrekontu orokorra osatzen duen gainerako dokumentazioa ere.

Erabaki horiek hartuta, eta hitza eman ondoren, Aitor Zubizarretak labur azaldu du bere taldeko zinegotziak alegazioak jartzeko izandako arrazoiak eta alegazio horien edukia. Horrela, esan du alegazioak hiru gai nagusiei buruzkoak direla: lehenengoa, gizarte programei zuzendutako partidak; bigarrena, diru laguntza izendunak; eta hirugarrena, inbertsioak. Gizarte programen partidei buruz adierazi du, bere taldearen iritziz, kreditu handiagoa izendatu behar dela izan daitezkeen eskariei erantzuteko, eta horren beharrik ez balego, erabili gabekoa beste partida batera aldatu, hau da, gobernu taldetik planteatzen denaren kontrara egitea, gobernu taldeak partida beharrezkoa denean bakarrik handitzea planteatzen baitu.

Diru laguntza izendunei dagokienez, irizpide berriak finkatu arte orain arte funtzionatu dutenekin jarraitzearen aldeko da, eta behin irizpideok finkatutakoan, interesdun guztiei horien berri eman eta dagozkion erabakiak hartzea. Eta, azkenik, inbertsioei dagokienez, “hiri altzariak” partida oso orokorra dela uste du, eta bere taldearen ustez, partida zehatza egon beharko litzatekeela haur-parkeentzat, hemen eta orain zehaztu behar gabe non eta noiz. Noski –esan du-, proposatutako igoera guztiak beste partida batzuetan egin beharreko murrizpen proposamenekin konpentsatuta daude.

Alkateak erantzun dio bai batzorde informatzailean bai azken osoko bilkuran garbi gelditu zela aurrekontua proposatzerakoan bere taldearen helburua “oreka” lortzea izan dela. Orokorrean, esan du, egin dena azken hiru ekitaldietan benetan izandako beharrak eta urte horietako aurrekontuen benetako exekuzioak aztertzea izan da, eta gero, hori aurtengo aurrekontuan jasotzea. Horregatik, gehitu du, denbora horretan behar izan den dirua jarri da gizarte zerbitzuetan ere, eta horrek ez du esan nahi erantzun beharrekotzat jotako beharren bat sortuz

gero, horri erantzuteko beharrezko krediturik gaituko ez denik. Diru laguntzei dagokienez, adierazi du ideiak martxan jartzeko interesa erakusten duen herritar orori esparru ireki bat sortzea nahi izan dela; eta gero, ideia horiek aurrez ezarritako eta onartutako irizpide eta baremoen bidez baloratzea. Eta, azkenik, inbertsioei dagokienez, esan du HIRI BERRITZE PLANA programan herritarrek egindako eskariei erantzutea nahi izan dela. Amaitzeko, esan du bere taldeak alegazioen aurka bozkatuko duela, eta bere taldea hasita dagoela diru laguntzak jaso ditzaketen herriko zenbait kultur talderekin bilerak egiten beraien kezkek eta proiektuak jasotzeko, eta gobernu taldearen gaur egungo lehentasunetako bat diru laguntzen deialdiko oinarriak onartzea dela.

### **3.- EUSKO JAURLARITZARI EGITEN ZAION ESKAERA AXTROKIKO ONTZIAK BERRESKURATZEKO.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 legeari jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirolak Sailburuordetzari eskatzea dagozkion negoziazioak has ditzala Arkeologia Museo Nazionalarekin eta Espainiako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirolak Ministerioarekin Axtrokiko ontziak Gipuzkoara (Donostiako San Telmo museora) edo Euskal Autonomia Erkidegora ekartzeko helburuarekin.

### **4.- EUSKADI LAGUNKOIA PROIEKTURA EGINDAKO ATXIKIMENDUA BERRESTEA.**

Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ondorengo helburuekin sustatutako "Euskadi Lagunkoia" proiektuarekiko Eskoriatzako Udalaren atxikimendua berrestea:

- Herritarren parte-hartze prozesuak sortzea eta bultzatzea.
- Udal eskumenen arloetan aldaketak ahalbideratzea herritarren bizi kalitatea hobetzeko.
- Adineko pertsonen Euskadiko herri eta hirietako bizitzan ongizate-sortzaile gisa eskaintzeko dutena baliatzea.
- Ekimen lagunkoien sare bat sortzea Euskadin.

Hori guztiori, Osasunaren Mundu Erakundeak ezarritako metodologia eta lau fasetako zikloa (planifikazioa, inplementazioa, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza) jarraituz.

#### **5.- ESKORIATZAKO UDAL KIROL ZERBITZUKO ARAUDIAREN ALDAKETA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak aldaketa proposamenik egin ez duenez, gaia gai zerrendatik kendu da.

#### **6.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEKO 9. ERANSKINA “KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEA” ALDATZEARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.**

Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak aldaketa proposamenik egin ez duenez, gaia gai zerrendatik kendu da.

#### **7.- GAI ZERRENDAN HONAKO GAIA SARTZEA BERRESTEA: UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK (AZAROAREN 16-TIK ABENDUAREN 15-ERA) HEMEN GARBIKETAK ENPRESAK AURKEZTUTAKO FAKTURA ORDAINTEKO AGINDUA BERRESTEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

2015eko abenduaren 16ko Alkate erabakiz (1228. zenbakiduna) ondoren hitzez hitz transkribatzen den erabakia **berrestea**.

**ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** 01228

**DATA:** 2015/12/16

**GAIA:** UDAL ERAIKINAK GARBITZEAGATIK (AZAROAREN 16-TIK ABENDUAREN 15-ERA) HEMEN GARBIKETAK ENPRESAK EGINDAKO FAKTURA ORDAINTZEKO AGINDUA.

**ESPEDIENTEA:** 2015IGER0032

**INTERESDUNA:** HEMEN GARBIKETAK S.L. UNIPERSONAL

*HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2015eko abenduaren 15ean egindako 10 faktura aurkeztu ditu (152560 zenbakitik 152569 zenbakirakoak), 2015eko azaroaren 16tik abenduaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.*

*Abendauren 16an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezketasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.*

*Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.*

*Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela.*

*Eragozpenei buruzko erabakia hartzeko organo eskuduna Udalbatzarra bada ere, ezin da itxaron hurrengo osoko bilkurara arte horri buruzko erabakiren bat hartzeko. Osoko bilkura urtarrilaren bukaera aldera egingo dela aurreikusten da, eta ordura arte itxaroteak merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen uztailaren 5koa 15/2010 Legean ezarritako epea ez betetzea ekarriko luke.*

*Aurrez esandakoan oinarrituz, eta kontuan izanik zerbitzuaren kostua finantzatzeko behar besteko aurrekontu izendapena dagoela, Alkate naizen honek honako hau*

**ERABAKI DUT**

**Bat.-** 2015eko azaroaren 16tik abenduaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz 2015eko abenduaren 15ean HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak egindako fakturak (152560 zenbakitik 152569 zenbakirakoak) ordaintzeko agintzea.

**Bi.-** Hurrengo osoko bilkuran erabaki hau Udalbatzarrari aurkeztea, berretsi dezan.

**8.- GAI ZERRENDAN HONAKO GAIA SARTZEA BERRESTEA: UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK (ABENDUAREN 16-TIK 2016-KO URTARRILAREN 15-ERA) HEMEN GARBIKETAK ENPRESAK AURKEZTUTAKO FAKTURA ORDAINTZEKO AGINDUA BERRESTEA.**

Aho batez erabaki da gaia gai zerrendan sartzea.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2015eko abenduaren 31n egindako 10 faktura aurkeztu ditu (152292 zenbakitik 152804 zenbakirakoak eta 152815 eta 152816 zenbakidunak) eta beste 10 2016ko urtarrilaren 16an (160001etik 160010era artekoak), 2015eko abenduaren 16tik 2016ko urtarrilaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.

Urtarrilaren 20an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezketasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- 2015eko abenduaren 16tik 2016ko urtarrilaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2015eko abenduaren 31n egindako 10 faktura (152292 zenbakitik 152804 zenbakirakoak eta 152815 eta 152816

*zenbakidunak) eta 2016ko urtarrilaren 16an egindako beste 10 (160001etik 160010era artekoak) ordaintzeko agintzea.*

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:50ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

Se da cuenta, con entrega de un extracto de las mismas, de las Resoluciones de la Alcaldía dictadas hasta el 14 de enero de 2016.

También se informa sobre el contenido de la sentencia dictada por el Juzgado de lo Contencioso Administrativo N° 1 de San Sebastian-Donostia con motivo del recurso en su día interpuesto por VISESA contra la Resolución de la Alcaldía, de fecha 6 de marzo de 2013, por la que se desestima la solicitud de incluir los gastos de contención de la ladera de Santa Marina como gastos de urbanización. La sentencia ha desestimado el recurso interpuesto por VISESA y por tanto es favorable para el Ayuntamiento y el resto de los promotores del ámbito.

## **2.-ACUERDO SOBRE ALEGACIONES PRESENTADAS A LA APROBACION INICIAL DEL PRESUPUESTO PARA 2016 Y SOBRE LA APROBACION DEFINITIVA.**

Con fecha 15 de diciembre de 2015 el Pleno aprobó inicialmente el Presupuesto Municipal para el ejercicio 2016.

Sometido el expediente a información pública mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 246, de fecha 24 de diciembre de 2015, se han presentado alegaciones a instancia de Edorta Barantidarán García, concejal del grupo BILDU.

Todos los presentes conocen el contenido de las alegaciones por cuanto que han dispuesto de una copia del escrito de las mismas. También conocen el dictamen que en relación a dichas alegaciones y a la aprobación inicial se eleva desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas.

El Alcalde somete a votación el dictamen de la Comisión Informativa y, con el resultado de 4 votos en contra del dictamen (3 de EH BILDU y 1 de IRABAZI) y el voto favorable de los 6 corporativos restantes (5 del PNV y 1 de EEE), el Pleno acuerda:

**Primero:** DESESTIMAR las alegaciones presentadas en escrito de fecha 14 de enero de 2016 ( N° de Entrada 60) por Edorta Barandiaran contra la aprobación inicial del Presupuesto 2016.

**Segundo:** Aprobar definitivamente el Presupuesto municipal por importe de 5.325.435,84 €, la Norma de Ejecución Presupuestaria de 2016, así como la demás documentación que integra el Presupuesto General para 2016.

Adoptados los anteriores acuerdos, y concedida la palabra, Aitor Zubizarreta explica brevemente el contenido y las razones por las que el concejal de su grupo interpuso las alegaciones. Así, dice, la alegaciones versan sobre 3 cuestiones principales: primera, las partidas destinadas a programas sociales; segunda, la subvenciones nominativas y tercera, las inversiones. En cuanto a las partidas de programas sociales manifiesta que su grupo es de la opinión de que hay que consignar más crédito para poder atender posibles demandas y en caso de que resultase que no hace falta transferir lo no dispuesto a otra partida; esto es, actuar de forma contraria a como se plantea desde el equipo de gobierno, que viene a plantear que en caso de que haga falta es cuando se incrementará la partida. En cuanto a las subvenciones nominativas, es de la opinión de seguir con las que hasta ahora han funcionado mientras se fijen los nuevos criterios, y una vez definidos éstos últimos adoptar los acuerdos que procedan informando de ello previamente a todos los afectados. Y por último, en cuanto a las inversiones, extiende que la partida “mobiliario urbano” es muy genérica y para su grupo habría que dotar una partida específica destinada a parque infantiles, sin necesidad de que aquí y ahora se definan donde y cuando. Por su puesto, añade, todo incremento que proponen está compensado con la correspondiente propuesta de reducción de consignaciones en otras partidas.

El alcalde le responde diciendo que tanto en la comisión informativa como en el último pleno quedó claro que el objetivo de su grupo a la hora de plantear el presupuesto ha sido el de buscar un “equilibrio”. En general, dice, lo que se ha hecho es analizar las necesidades reales constatadas en los 3 últimos años con la ejecución real de los respectivos presupuestos y plasmarlas en el presupuesto de este año. Por eso, añade, también en servicios sociales se ha puesto el dinero que se ha constatado ha hecho falta en ese periodo de tiempo; y que ello no implica que si surge una necesidad que se considera necesario atender no se habilite el crédito necesario para ello. En cuanto a las subvenciones, manifiesta que lo que se ha pretendido es crear un marco abierto a todo vecino que esté interesado en aportar ideas y luego valorar éstas últimas con base a unos criterios y baremos preestablecidos y aprobados. Y por último, en relación a las inversiones, dice que lo que se ha pretendido es dar respuesta a las demandas planteadas por los vecinos dentro del programa HIRI BERRITZE PLANA. Termina su intervención diciendo que el voto de su grupo es que no a las alegaciones y que su grupo ya ha empezado a tener reuniones con algunos grupos culturales del municipio a los que les afectan las subvenciones para que trasmitan sus inquietudes y proyectos, siendo el asunto de la aprobación de las BASES de la convocatoria de las ayudas una de las prioridades actuales del equipo de gobierno.

### **3.-SOLICITUD QUE SE CURSA AL GOBIERNO VASCO PARA RECUPERAR LOS CUENCOS DE AXTROKI.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

1º.- En virtud de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, instar a la Vicenconsejería de Cultura, Juventud y Deportes del Gobierno Vasco a que comience las negociaciones pertinentes con el Museo Arqueológico Nacional y el Ministerio de Educación, Cultura y Deportes del Gobierno de España a fin de traer los cuencos de Axtroki a la Comunidad Autónoma Vasca.

### **4.-RATIFICACION DE LA FIRMA DE ADHESION AL PROYECTO EUSKADI LAGUNKOIA.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Integración y Servicios Sociales y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA: RATIFICAR la adhesión del municipio de Eskoriatza al Proyecto “Euskadi Lagunkoia”, impulsado por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, con los objetivos de:

- Generar procesos de participación comunitaria.
- Facilitar la introducción de cambios en las diferentes áreas competenciales del municipio a fin de mejorar la calidad de vida de sus ciudadan@s, y
- Aprovechar el potencial que representan las personas mayores en la vida ciudadana como generadoras de bienestar.
- Generar una red de iniciativas de amigabilidad en Euskadi

Todo ello siguiendo la metodología de trabajo y el ciclo de cuatro fases establecido por la OMS (Planificación, Implementación, Evaluación y Mejora continua).

#### **5.-APROBACION INICIAL DE LA MODIFICACION DEL REGLAMENTO DEL SERVICIO MUNICIPAL DE DEPORTES DE ESKORIATZA.**

A falta de propuesta de modificación alguna por parte de la Comisión Informativa de Integración y Servicios Sociales, el asunto queda retirado del orden del día.

#### **6.-APROBACION INICIAL DE LA MODIFICACION DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA TASA POR PRESTACION DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS. ANEXO 9 “TASA POR UTILIZACIÓN DE INSTALACIONES DEPORTIVAS Y USO DE SERVICIOS DEPORTIVOS”**

A falta de propuesta de modificación alguna por parte de la Comisión Informativa de Integración y Servicios Sociales, el asunto queda retirado del orden del día.

**7.-RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DEL ASUNTO DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA.  
RATIFICACION DE LA ORDEN DE PAGO DE FACTURA EMITIDA POR HEMEN  
GARBIKETAK POR SERVICIOS DE LIMPIEZA DE EDIFICIOS (16 DE NOVIEMBRE -15 DE  
DICIEMBRE).**

Con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Ratificar** el acuerdo adoptado por la Alcaldía en virtud de la Resolución N° 1228, de fecha 16 de diciembre de 2015, cuya copia literal se transcribe a continuación:

**RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA**

**NÚMERO:** 01228

**FECHA:** 2015/12/16

**ASUNTO:** **ORDEN DE PAGO DE FACTURA EMITIDA POR HEMEN GARBIKETAK POR LA LIMPIEZA DE EDIFICIOS MUNICIPALES DEL 16 DE NOVIEMBRE AL 15 DE DICIEMBRE.**

**EXPEDIENTE:** 2015IGER0032

**INTERESADO:** HEMEN GARBIKETAK S.L. UNIPERSONAL

*HEMEN GARBIKETAK SLU ha presentado 10 facturas de fecha 15 de diciembre de 2015 (del n° 152560 al n° 152569) relativas al servicio de limpieza de diversos edificios municipales prestado durante el periodo comprendido de fecha 16 de noviembre de 2015 a 15 de diciembre de 2015.*

*Mediante informe de fecha 16 de diciembre de 2015, la Secretaria- Interventora formula reparo de legalidad a dicho expediente basado en la inexistencia de contrato.*

*Desde los servicios técnicos municipales se informa en el sentido de proceder al abono de dichas facturas alegando que el servicio ha sido prestado satisfactoriamente y a los precios habituales de mercado.*

*Considerando que el no abonar las mismas implicaría perjudicar a terceros que actúan de buena fe (en este caso HEMEN GARBIKETAK SLU) y un enriquecimiento injusto para esta*

administración, es por lo que el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

Aunque el órgano competente para resolver sobre los reparos sea el pleno municipal, no se puede esperar hasta la siguiente sesión plenaria para tomar una resolución al respecto. Se prevé que el siguiente pleno se celebre hacia finales de enero, y el esperar hasta entonces conllevaría no cumplir el plazo estipulado en la Ley 15/2010, de 5 de julio, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

Con base en cuanto antecede, y teniendo en cuenta que hay suficiente asignación presupuestaria para financiar el coste del servicio,

#### **RESUELVO**

**Uno.-** ORDENAR EL PAGO de las facturas emitidas por HERMEN GARBIKETAK S.L.U en fecha 15 de diciembre de 2015 (del nº 152560 al nº 152569) relativas al servicio de limpieza de diversos edificios municipales prestado durante el periodo comprendido de fecha 16 de noviembre de 2015 a 15 de diciembre de 2016.

**Dos.-** Dar cuenta de esta resolución al pleno municipal en la siguiente sesión plenaria, para que la ratifique.

#### **8.-RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DEL ASUNTO DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA. ORDEN DE PAGO DE FACTURA EMITIDA POR HEMEN GARBIKETAK POR SERVICIOS DE LIMPIEZA DE EDIFICIOS (16 DE DICIEMBRE DE 2015 -15 DE ENERO DE 2016).**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión del asunto dentro del orden del día.

HEMEN GARBIKETAK SLU ha presentado 10 facturas de fecha 31 de diciembre de 2015 (nº 152292 a la nº 152804 y nº 152815 y nº 152816) y otras 10 de fecha 16 de enero de 2016 (nº 160001 a la nº 160010) relativas al servicio de limpieza de diversos edificios municipales prestado durante el periodo comprendido de fecha 16 de diciembre de 2015 a 15 de enero de 2016.

*Mediante informe de fecha 20 de enero de 2016, la Secretaria- Interventora formula reparo de legalidad a dicho expediente basado en la inexistencia de contrato.*

*Desde los servicios técnicos municipales se informa en el sentido de proceder al abono de dichas facturas alegando que el servicio ha sido prestado satisfactoriamente y a los precios habituales de mercado.*

*Considerando que el no abonar las mismas implicaría perjudicar a terceros que actúan de buena fe (en este caso HEMEN GARBIKETAK SLU) y un enriquecimiento injusto para esta administración, es por lo que el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:*

*- ORDENAR EL PAGO de las facturas emitidas por HERMEN GARBIKETAK S.L.U en fecha 31 de diciembre de 2015 (nº 152292 a la nº 152804 y nº 152815 y nº 152816) y en fecha 16 de enero de 2016 (nº 160001 a la nº 160010) relativas al servicio de limpieza de diversos edificios municipales prestado durante el periodo comprendido de fecha 16 de diciembre de 2015 a 15 de enero de 2016.*

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:50 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**